

RITZIA
Pello Rubio

ERREPORTAIA
Gabonetako
rudiak

BARREN

1998ko urtarrilaren 9a
VI. urtea - 220.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

UDALETXETIK
ionalki

BERBETAN
Bego Martin, 5 urte
rlandan bizitzen

KIROLA
Mugerza Krosa

KULTURA
BARRENen 5. urte
reneko ospakizun
nak



Mugerza Krosaren 55. edizioa
**Korrikalari handiak
podiumean**

“Ekintza handiak ez dira indarrarekin lortzen, gogor saiatuz baizik” S. Johnson




Santiago Hernández

Taxista

Antonio Arrillaga, 6-1A

Tel: 74 38 15 / Mugikorra: 908 67 12

Burladara bidaiak



98ko

Elgoibar eta

**Gida Komertzial
gaurkotua**

hil honetan

zuen etxeetan



PELLO RUBIO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Gabonzahar

Urte berriari hasiera eman badiogu ere, duela 13 egun hain justu egin zen Gabonzahar feria berreskuratu nahi dut oraingo honetan. Baserriko produktuen hainbat feriaz eta erakusketaz gozatzeko aukera dugu Euskal Herrian, eta Elgoibarko Gabonzahar azoka ospe handikoa da.

Feria hauen betebeharra, herrirako diru-sarrera izateaz gain, beste zerbaite garrantzitsuagoa ere izan behar da: Euskal Herriko biztanleak bertako produktuak kontsumitzeko garrantziaz kontzientziatzea. Bertako produktuak kontsumitzea, alegia.

Udalen aldetik garbi dago azoka hauek jai egitarauko ekitaldi bat gehiago direla. Guk, baserritarrok, gauza hauek aprobetxatu beharko genituzke eta benetako azoka bihurtu gure produktuak promozionatzeko eta hurbiltzen den jende multzo handiari gure produktuen kalitatea erakusteko.

Hona hemen gure produktuen kalitatea ziurtatzen duten hainbat puntu:

- Ekoizpenetik hasi eta komertzializazio-raino gogoz eta mimoz egindako pro-

duktua da.

- Produktu freskoa da. Euskal Herria nahiko txikia denez, baserriatik mahaira oso denbora txikia behar du. Ekonomia arrazional eta ekologiaren ikuspuntutik begiratuta, produktua hurbiletik ekoizten bada, energia gutxiago beharko da kontsumo puntura heltzeko. Esate baterako, zergatik erosi Californiako puntatik ekarritako intxaurrak, baserritarrak bertako intxaurrak saldu ezinik dabiltzanean? Argi eduki behar dugu energia ez dela alperrik galdu behar.

Guk kontsumitu behar duguna bertan ekoiztutakoa bada, lana ere bertan gelditzen da eta langabeziari aurre egiten gabilta. Edaten dugun esnea, esate baterako, atzerrikoa bada,

atzerriko baserritarri lana ematen diogun artean, bertakoari kentzen gabilta. Baserriaren hanka apurtzen bada, denona den mahaia kili-kolo egongo da.

Baserriak etorkizuna izatea gure esku ere badago. Baserritarren etorkizunarekin lotuta dago ingurugiroaren, hizkuntzaren eta zenbait balore kulturalen etorkizuna. Beraz, gure esku dago horiez disfrutatzea.

“Baserriaren hanka apurtzen bada, denona den mahaia kilikolo egongo da”.





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ **74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **74 37 04**
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegi, Jon Garate, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, KOKOE, Imanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Mahai Nazionala askatu

Elgoibarko Gazte Asanbladak gehiegizkoa ikusi du HBko Mahai Nazionalaren gartzelaratzeari.

Honelako egoera larriak aintzat hartu beharko genituzke, pertsonen eta gizartearen adierazpen askatasuna baitago jokoan.

Era berean, erabaki hauek salatzeko betebeharra daukagu, gizarte guztiarengan baitauka eragina.

Mahai Nazionala Askatu!

Adierazpen Askatasuna Askatu!

Hiloaren kanpaina

Elgoibarko Cáritasek Ikastolako Eeta Pilar ikastetxeetako ikasleei eskerrak eman nahi dizkie eman ditzuten jatekoengatik. Jateko hauek beharra duten gure anai-arreben artean banatuko ditugu. Gure eskerrak baita ere irakasle eta gurasoei, beraien laguntzarik gabe ez litzakeelako posible izango kanpaina hau aurrrera eramatea.

Elgoibarko Gazte Asanblada

Elgoibarko Cáritas

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.




KEXAK

◆ **Bi herritarrek** deitu digute telefonoz Txan-kakuako zubian egin-dako konponketa lanak direla eta. “Igeltseruak konponketan ibili diazenian zaborrak, egurrak eta bes-telako guztiak ibaira bota ditxue. Kantida-de dexente gainera, eta udaltzainak ere ez dira inondik agertu. Udale-txeko lanak izanda, be-netan lotsatzekua iru-ditzen jaku, negargarri-xa. Kalian zigarruak ezin diazela bota esaten dabe eta gero erre-kia zikintzerako orduan ez dabe erreparo-

rik jartzen. **Gero esan-go dabe Elgoibar he-rrri pilotua dala gar-bitxasunian.** Ia kontu-ratzen diazen ze zikin-kerixa ein daben”.


◆ **Elizako parkeko komunetan heldule-kurik ez dagoela-eta kexatzen etorri dira neska batzuk.** “Kan-poko burdinazko he-siak ez dauka mani-larik eta joan zen egun batean komune-tara sartu eta barruan harrapatuta geratu gi-nen. **15 minutu egon ginen barruan** udal-tzain batek atera ireki zigun arte”.



TXALOAK

◆ **Ikastolako ikasle guztiek Telepizza txalotu nahi dute** urteko azken klase egunean pizzak eta goxokiak eraman zizkietelako”.

BAI, ESAN?



Jose Mari Kortaberria

Mugerza Kroseko antolatzailea

Aste honetan **Juan Mugerza Memorialeko antolatzaileetari-koa den Jose Mari Kortaberriari** hiruzpalau galdera egin dizkiogu pasa den domekan jokatu zen krosaren gainean. Aparteko eguraldia egin zuen domekan, eta jakin badakigu, eguraldia oso garrantzitsua dela dena ondo ateratzeko.

- **Kroseko bezperan Santa Klarako mojei arraultzak eraman al zenizkieten?**- Ez genuen horrelakorik egin. Larunbat goizean ere eguraldi oso ona egin eta, iluntzean berriz, euri zaparrada galantak bota zituen. Igande goizean haizearekin nahiko arazo izan genuen baina krosean eguraldiak onera egin zuen. Euriarekin lokatza izaten da nagusi zirkuituan eta, noski, ez da berdina lehorean edo lokatzean korrika egitea. Era berean, eguraldi onarekin jendea errazago animatzen da etxetik irten eta horrelako ikuski-zun batera hurbiltzera. Planak egiteko orduan ere, bezperako eguraldia oso garrantzitsua da jendearen erantzunerako.

- **Pozik zaudete gauzak nola atera ziren ikusita?** - Bai, orokorrean pozik gaude. Lasterketa polita izan zen eta goi mailako korrikalariak izan ziren podiumean. Diru kontuetan ere (nahiz eta oraindik kontuak itxi ez), dirudienez ondo irten da dena. Jende mailan, beherakadarik ez dugu nabaritu. Sarreraren dirua dela medio, azken urteetako kopurua antzekoa izan da. Gure erronka garrantzitsuena jendea urtez urte gehitzea da, baina ez da batere erraza eta ez gutxitzearekin konformatu behar dugu.

- **Zein izaten dira antolatzaileek izaten dituzuen arazo nagusiak?** - Dударik gabe arazorik nagusia aurrekontua betetzeko dirua lortzea da. Hau lortu eta gero, beste dena egitea errazago da. Finantziatorik gabe (Erakunde publikoak, publizitatea, Mintxetako sarrerak, herriaren laguntza...) ez da posible horrelako mailako kirol frogarik antolatzea.

- **Hasi al zarete 99ko krosa prestatzen?** - Bai, nola ez. Karrera amaitu eta berehala hasten gara datorren urterako planak egiten. Esperientziak balio du eta horrez baliatzea ez da gauza makala.



ESKERTZA

1997ko abenduaren 9an hil zen

M^a PILAR OLAIZOLA GEREDIAGAren sendiak
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gabonak iru-

Nondik hasi eta nondik jarraitu? Ez da erraza. Izan ere, Gabonek irauten duten tartean hainbat eta hainbat ekintza desberdin izaten ditugu herrian. Bakoitzak gustukoena aukera ditzake. 1998ko lehenengo zenbaki honetan, urteko azken bi astei begira jarri gara eta irudien bitartez errepassoa egin dugu.

►Musikari dagokionean era guztietako kontzertuak izan dira entzungai. Hasteko, oporren atarian, Elgoibarko Izarrak haurrentzako ikuskizuna antolatu zuen Oskorriren eta Kukubiltxoren eskutik. “Marijane kanta zan” izeneko jaialdian ehundaka haur eta guraso elkartu ziren eta abestien doinuekin ezezik, pertsonaien jazkera koloretsu eta biziakin begiak gozateko parada izan zen.

►Udal Musika Bandak ere izan zuen tarterik Gabonetan, kalejira eta, nola ez, baita kontzertua ere zaletu guztientzat. Gazteenentzat, berriz, makinatxo bat kontzertu antolatu zituen Gazte Asanbladak, abenduaren 19an hasita Pleasure Fuckers taldearen eskutik.

►Bestelako musikarik ere izan zen: Itxaropena abesbatzak kontzertua eman zuen Parrokian Soroluzeko Esozia abesbatzarekin batera. Parrokiako abesbatzak, berriz, ohiko kalejira egin zuen Gabonzahar feria egunean.

►Feria egunean izan zen, baita ere, Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso jaialdia. Egaña, Sarasua, Iturriaga eta Lizasok saio polita eskaini zien Herriko Antzokian elkartutakoei.


►Ostantzean, Parrokiako Jaiotza oraindik orain ikusgai dago Leku-Ederreko parkean.

►Abenduaren 24an bi Olentzero ikusi ahal izan ziren herriko kaleetan: bata Atxutxiamaiak begirale taldeak antolatua eta bestea Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

►Errege bezperan, berriz, Plaza Handira ehundaka haur inguratu ziren Parrokiako arkupeetan zegoen jaiotza biziduna eta Santa Klaratik behera jaitsi ziren hiru erregeak ikustera.

►Iusioz etorri ziren Gabonak eta joan ere konturatu orduko joan dira. Beste festarik tokatu artean, Urteberri On!





Ze itxura hartzen diozu 1998ari?



ALVARO BLANCO
18 urte, ikaslea

Beste edozein bezalakoa. Pertsonalki, nere helburua autoa gidatzeko karneta ateratzea da baina urte aldaketak ez du suposatzen beste aldaketarik.



ROSA MARI MAIDAGAN
50 urte, etxekoandrea

Nik urte ona ikusten dot, bai ekonomian eta bai politikan. Gauzak bide onetik duaz. Nere kasuan gauzek antzera jarraitzia espero dot.



OIER RAMOS
17 urte, ikaslea

Orokorrian positiboa izango dala pentsatzen dot. Pertsonalki, kursoa ondo etartzia nahi nuke, nobixia badakat... Beste gauzak berdin jarraitzia.



MARI LOLI IZAGIRRE
52 urte, etxekoandrea

Antzerakua izango dala pentsatzen dot. Ekonomikoki hobetxuo izango dala esaten dabe, behintzat hori nahi dou danok. Neretzat aurrekua bezelakua izaten bada, ondo.



IOSU ALONSO
60 urte, jubilatua

Nik ez dot holako gauzez ententitzen baina antzerakua izango da. Ni neu oin ondo bizi naiz jubilauta nauanetik, eta urte berrixari ez diot gauza haundirik eskatzen.



ANA DELGADO
49 urte, etxekoandrea

Ona espero dut. Lana mugitzen ari da eta ekonomikoki behintzat gauzek onera egingo dutela uste dut. Pertsonalki, urtero asmo mordoia izaten dut baina azkenean, ezer ez.



Patxi Arriola San Martin

1997ko abenduaren 27an hil zen 81 urte zituela.

*Benetako euskalduna
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea*



EAko alderdikideak

ISPILUARI BEGIRA



**MANUEL
SOTO**


Egunkari saltailea

- **“Goizean goiz jaikitzen denari Jainkoak laguntzen dio”**. - Ba niri ez. Izan ere, goizeko lehen orduetan ez da asko saltzen eta lanbide honek diru gutxi ematen du.
- **Zein egunkari irakurtzen duzu?** - Saltzen ditudan egunkarien portadak baino ez ditut irakurtzen.
- **Zure zein bertute argitaratuko zenuke egunkari bateko azalean?** - Nire umore ona.
- **Eta zein ez?** - Prontoa.
- **Telefonoa ala eskutitza?** - Telefonoa, garestiagoa izan arren azkarragoa baita.
- **“Eguraldi iragarleek beti diote gezurra”**. - Nik ez dut uste hori horrela denik. Gero eta aparatu sofistikatuagoak dituztenez, informazio zehatzagoa ematen dute.
- **Albiste bat bazina, zein izan nahi zenuke?**
- Munduko gosearen amaieraren berri emango lukeena.
- **Gustuko pertsonaia publikoa?** - Ramón García, jatorra delako eta hemengoa gainera.
- **Eta atsegin ez duzun bat?** - Chiquito de la Calzada, tontokeriak baizik ez baititu esaten. Ez daki txisteak kontatzen.
- **Lanbidez aldatzerik bazenu?**
- Autobus gidaria izan nahi nuke.
- **Zein konotazio ditu zuretzat “kazetari” hitzak?** - Nire ustez, kazetariak askotan gehiegi presionatzen dute jendea.
- **Elurra ala hego haizea?** - Nahiago dut elurra baina negu hotzean eskertzen da hego haizea.
- **Sinesten al duzu horoskopooan?** - Ez, inolaz ere ez.
- **Zer esango zenuke Elgoibarri buruzko publizitate spot batean?** - Toki lasaia eta egokia dela bizitzeko.
- **Zein argazki atera nahi zenuke?** - Une honetan besoetan daukadan onena: nire biloba Norarena.
- **Jarri izenburu bat zure buruari.**
- Burua bere tokian daukat.
- **Oroitzapen bat?**
- Elgoibarrera iritsi nintzenekoa. Zoragarria izan zen.
- **Ilusio bat?** - Osasunarekin bizitzea.
- **Esaera gustukoena?** - “Bizi eta laga bizitzen”.

Amaia Gorostiza

Barrenkaleko bluesak

ZAZPI ESKALE, Soraluzen,
UNAI urtarrilak 17,
ITURRIAGA, larunbata,
UNAI ELORZA, gaueko 11etan
IOSU ZABALA...



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAXA

POL-POL

T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR



ANCHUSTEGUI ^{sa}
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel: 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

● Kaleak garbi mantentzeko ideia lehiaketa

Deba Beheko Mankomunitateak, gure herrietako kaleak garbi mantentzeko ideia lehiaketa antolatu du ingurugiroaren eta kale garbiketaren kanpainaren barruan. LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko lehen mailako haurrei zuzendutako lehiaketa da. Gure kaleetan pilatzen diren zikinen arazoari konponbidea emateko eskatzen zaie. Lanak aurkezteko epea otsailaren 27an amaituko da. Irabazleak hiru lagunentzako Port Aventura bidaia izango du sari modura.

● 40 zakarrontzi berri Elgoibarren

“Herri garbi bategatik” lelopean burutzen ari den garbitasun plan pilotorearen barruan, Elgoibarko Udala eta Mankomunitatea akordio batreira iritsi dira eta Gabonzahar feriaren ostean hasita, 40 zakarrontzi berri ari dira jartzen Errosario, San Bartolome eta San Frantzisko kaleetan, Foruen Plaza, Txankakua zubian, Trenbide kalean, San Roken, Juan Mugerzan eta Arregitorren, besteak beste. Udal arduradun baten hitzetan, “orokorrean nahikoa zakarrontzi ditugu herrian, baina erdiko aldean beharra handiagoa zela ikusi genuen”. Guztira 271 izango ditugu herrian, 41 biztanleko zakarrontzi bat.

● Institutuko ikasleen zoketa

Institutuko ikasleek Gaztebidairako saldu zuten Gabonetako loteriaren zenbakia saritua atera da. Hori dela eta, zenbakia duten guztiek urtarrilaren 12, 16, 19, 23, 26 eta 30ean Kultur Etxeko bilera gelan azaldu behar dute dirua jasotzeko, arratsaldeko 5:30etatik 19:00etara bitartean.

Ibarretxe lehendakariordeak banatu zituen Gestio Eskolako ikasleen tituluak

Lehen promozioko ikasleen %76a lanean ari da

Gestio Eskolako lehen promozioko titulu banatze ekitaldi ofiziala egin zen joan den hilaren 19an Juan Jose Ibarretxe lehendakariordearen eskutik. Iluntzean izan zen ekitaldian, Gilermo Garate alkatea, Iñaki Arriola Eskolako Patronatuko presidentea, Jose Mari Ulazia eskolako zuzendaria, Estibaliz Zabala ikasleen ordezkaria eta Paco Vega praktikak egin dituzte enpresetako ordezkaria ere izan ziren.

Eskolako arduradunen esanetan, le-

hen promozioko 41 ikasle hauetatik, 6 bakarrak daude lanik gabe eta 4 masterrak egiten ari dira. Kolokazio ratioa %76koa da. Ikasle hauek 97ko uztailean amaitu zuten kurtsoa ikasturte amaierako proiektua aurkeztu eta defendatu eta gero. Hirugarren mailan enpresa ezberdinetan praktikak egiten dituzte eta laugarren maila amaitzerakoan beste lau hilabete egoten dira praktiketan bertako edo atzerriko enpresetan. Gestio Eskolako enpresetan, “ikasle hauek sail ezberdinetan daude lanean: marketinean, kalitatean, produktioan, aprobisionamenduan zein gerentzian. Honek esan nahi du gure ikasleen prestakuntza polibalentea dela. Ikasle asko praktikak egin dituzten enpresetan ari dira lanean. Beste batzuek, berriz, selekzio prozesuak pasatu ondoren lortu dute lanpostua”. Gaur egun lanik gabe dauden 6 ikasleentzako kolokazio bila ari dira Gestio Eskolakoak.



Alkortako lurretan 100 etxe eraikitzeke asmoa dago

Elgoibarrek 500 etxebizitza berri izango ditu guztira

Alkorta eta Unzuetako lantegiak bota ondoren geratu diren lurretan, etxebizitzak eraikitzeke asmoa dagoela jakin dugu Udaleko iturrietatik. Lur horietan 100 bat etxebizitza eraikiko dira eta, bide batez, gaur egun oso degradatua dagoen gunea errehabilitatzeko aprobetxatuko da. Gilermo Garate alkateak esan bezala, “inguru hori guztia oso egoera txarrean dago, eraikuntza hondatuak daude eta arratoi eta bestelako zikin-keria jasotzeko eragin-gunea da”. Etxebizitzak eraiki eta ingurua txukuntzeaz gain, IMHtik Madalara bitartean San Lorentzoko

errekastoa desbideratu egingo da, ubide irekia egin eta uholde arriskua gutxitzeko.

500 etxebizitza berri

Alkorta enpresa zegoen tokian eraikiko diren 100 etxebizitzetaz gain, Babes

Ofizialekoak eta IMH ondoran egingo diren etxebizitzak kontuan hartuz, 500 etxebizitza berri izango dira aurrerantzean Elgoibarren, “era eta prezio guztietakoak eta Deba Behean dagoen etxe eskasia arinduko dutenak”.



Bi liburu berri kaleratu ditu Koldo Lizarralde etnologoak

Koldo Lizarralde etnologo elgoibartarrak bi libururen aurkezpena egin du azken bi asteotan. Abenduaren 26ko iluntzean “Apunte etnografikoak II. Igarotze Erritokoak” izeneko liburua aurkeztu zuen Kultur Etxean Guillermo Garate alkatea, Ana Santolaya Kultur zinegotzia eta J. A. Azpiazu etnologoaren partehartzearekin. Liburu hau “Apunte etnografikoak I” izenburuko idatziaren jarraipena dela esan daiteke. Koldok esan digunez, “Elgoibarko bizitzako fase ezberdinak jasotzen ditut: jaiotzatik ezkontzara bitartean, hau da, haurtzaroan, gaztaroan etab. ean herritarren ohiturak, bizimodua eta zenbait datu historiko”. Herritarren testigantzez baliatuz egin du datu pilaketa idazle honek. Liburua Udalak argitaratu du eta liburudendetan dago salgai. Euskaraz eta gaztelaniaz dago idatzita.

Urte berriarekin batera, hilaren 2an hain zuzen, Karmelo Urdanga-

rin eta Jose Maria Izagarekin batera “Oficios tradicionales” sailari dagokion hirugarren zatia aurkeztu zuen Koldo Lizarralde Aldundiaren diru laguntzaz. Euskal Herriko lanbide ezberdinen berri ematen du liburu honek, tartean Elgoibarren eza-gutu izan diren lanbideak ere ageri direlarik: organo konpontzaileak, rejeroak, burdinoletako langileak, etab.



30 jaiotza

Parrokiako Jaiotzen Lehiaketan

Herriko neska-mutikoez egin dako jaiotzen lehiaketan 30 taldek hartu dute parte. Jaiotza guztiak, 30 alegia, Argin zapatadendan egon dira ikusgai Gabonetako opor egunetan. Belezaleen Elkartek emandako 16 sari banatu dira lehen sailkatuen artean. Irabazleak Lander Azpiazu, Iñigo Garai, Sergio Martin, Andoni Gómez, Jon Iñiguez, Xabier Vazquez, Jon Gabilondo, Asier Atorrasa-

gasti eta Aitzol Arrizabalaga izan ziren. Argazkian ikusten ditugu kartoiz egindako Jaiotzarekin. Bigarren sarituak Ander Sanchez eta Jon Sanchez izan dira eta hirugarrenak Elisabet Pradera, Maitane Moreda, Maitane Huidobro, Leire Ipiña, Ander Martin, Eneritz Mella, Iratxe Balada, Mireia de Castro, Cristina Montero, Sara Pelaz eta Izaskun Esnaola.



● Hasi dira beherapenak

Urtero bezala, Gabonen ostean beherapenak hasten dira jantzidenda, zapatadenda etab. etan. Astelehenean, hilak 7, hasi ziren beherapenak Elgoibarko denda batzuetan baina beste batzuek San Anton eguna eta gero jarriko dituzte. Txankakua Merkataritza Zerbitzuak ez du beherapenak hasteko data bat jarri denda guztientzat. Horregatik, bakoitzak erabakiko du noiz hasi. Zentzu honetan Elgoibarko Kontsumo Bulegoak aholku batzuk eman ditu beherapenetan erostetak egiten dituenarentzat. Erositakoaren tiketa eskatu; itzultzeko aukera ematen duten dendetan erosi; lehenengo eta jaitzita-ko prezioa erakusteko eskatu eta konposizio etiketarik gabeko gauzarik ez erosi.



azkue

Ego-Tokiren omenaldia Haritz Dantzari taldeari

Hilaren 3an, Juan Mugerza krosaren aurkezpenan, Ego-Toki Elkartek Haritz Dantzari Taldea omendu nahi izan zuen, aurten 25 urte betetzen dituelako batetik, eta bestetik, Haritz Taldeak krosetako kirolariei egiten zaien aurkezpenean aureskua dantzatu izan duelako urte askotan. Ego-Toki Elkartearen izenean, Rolando Trucios presidentek oroigarri bat eman zion Haritz Dantzari Taldeko zuzendaria den Jose Inazio Sarasuari. Argazkiak une hori jasotzen du.

● **Ur-kontadoreak berri dira**

Hiru urteko iraupena izan duen tartean, 2.300 ur-kontadore aldatu dira herrian. Kontadore berriak digitalak dira eta aurrekoak baino fidagarriagoak. Gainera, ahal izan den neurrian, etxebizitza barruan izan beharrean, portalean jarri dira kontadoreak, honela ez delarik izango beharrezkoa etxebizitza barrura sartzea. Honek guztiak eragin positiboa izan du eta zerbitzuaren kalitatea igo da. Aldaketa honen batez besteko kostua 12 milioi pezetakoa izan da.

● **Sigma lantegiko terrenei buruzko erabakia exigitu du Gillermo Garatek**

Bi urtez blokeatuta dago Sigma lantegiko terrenekin egingo denari buruzko erabakia. Gillermo Garatek Jabier Retegi, Industria sailburuari jakinarazi zionez, "32.000 metro karratuko terreno horietan enpresak kokatzeko eskamera handia dago eta premiazkoa da behin-betiko erabaki bat hartzea". Izan ere, Sigmako terrenean etorkizuna gaur egun lur horien jabeak diren Fogasa, Seguridade Soziala, Hazienda eta Eusko Jaur-laritzak hartzen duten erabakian dago, "eta bizi dugun egoera ekonomiko onak areagotu egiten du soluzioa lehenbailehen hartzeako premia".

OTA probisionalki jartzea erabaki du Udalak

Printzipioz sei hilabetez egingo da proba

A benduan izan zen plenoan Elgoibarko zenbait kaleetan OTA jartzea onartu zuten alderdiek. Bozketan, PP eta IU-EB aurka azaldu ziren eta HBk ez zuten parte hartu plenoan Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa salatzeko. Halere, gainontzeko alderdien aldeko botuei esker aurrera egin zuen ordenantza berriak.



OTA jartzen duten tokietan gehienez 90 minutu egon ahal izango dira aparkatuta autoak.

Halere, OTAri buruzko araudia argitaratzen denetik epe bar dago herritarrek emendakinak aurkez ditzaten. Beraz, hurrengo pleno batean hartuko da OTAri buruzko erabaki definitiboa.

Alde batetik, San Frantzisko, San Bartolome eta Errosario kaleak eta Nafarroa enparantza peatonalizatu egingo dira, hau da, aurrerantzean oinezkoentzat bakarrik izango da eta ibilgailuek ezin izango dute bertatik ibili eta aparkatu, larrialdiko kasuetan eta aipaturiko kaleetako denden jabeek hala justifikatzen dutenean salbu.

OTA

Bestalde, OTAri buruzko ordenantza onartu zen. Hasiera batean sei hilabetez egingo da frogara eta ongi aterako balitz behin-betirako jarriko litzateke. Trenbide, P. Migel Uruzuno, Aita Agirre plaza, Santa Ana, San Inazio, Ubitarte eta Antonio Arri-

llaga kaleetan jarriko da OTA. Astelehentik ostiralera bitartean ezarriko da, goizeko 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30era eta larunbatetan goizeko 9:00etatik 13:30era. Gehienez 90 minutu egon ahal izango dira aparkatuta autoak. Hortik gora edo tiketik gabe aparkatzeagatik gruak autoa eramanez deza.

OTAren prezioak ondokoak izango dira: 20 minutu, 20 pezeta; 60 minutu, 60 pezeta eta 90 minutu, 100 pezeta. OTAren inguruko arauak betetzen ez dituztenei 2.000 eta 5.000 pezeta bitarteko isuna jarriko zaie. OTA jarriko den kaleetako bizilagunentzat tarifak berdinak izango dira baina egun bakoitzean ordu eta erdi izango dute Trenbide kalean doanik aparkatzeko.

Deba Beheko Mankomunitateak 635 milioiko aurrekontua du 1998rako

1997ko aurrekontua baino %5 altuagoa izango da 1998rako izango duena Deba Beheko Mankomunitateak. Eskualdeko Udalek %2 gehiago eman beharko dute eta Mankomunitateak enpresei eta partikularrei eskaintzen dien zerbitzuek aurrekontuaren %10eko sarrera suposatzen dute. Luis Alberto Aranberri, Mankomunitateko lehendakariak azaldu zuenez, "aurrekontuek, inbertsioak gehitzeko bokazioa dute eta zerbitzuen kalitatearen hobetzean ere izango du eraginik". 21 milioi Urruzunoko zabortearen funtzionamendua beste 5 urtez luzatzeko erabiliko dira. Zerbitzuei dagokionean, berriz, besteak beste kaleak

sarriago ureztatuko dira, zaborrak gehiagotan jasoko dira, bai eta papera eta kartoia ere eta abar. Elgoibarren 1997an martxan jarri zen garbiketari buruzko plan pilotoak 1998ko apirilera arte iraungo du eta ondo aterako balitz, eskualde osoan martxan jartzeko aukera egongo da.

Bestalde, aurrera begira neumatikoak, pilak edo elektrodomestikoak jasoko litzatekeen kontenedoreak jartzeari buruzko hausnarketa egingo da, "izan ere, jendeak gero eta gehiago eskatzen ditu horrelako gauzak baina, era berean, praktikan jartzean kostu handia suposatzen du eta jendea ez da horretaz jabetzen".

100etik gora saltzaile eta milaka erosle Gabonzahar ferian

100etik gora saltoki ikusi ahal izan ziren Gabonzahar ferian. Deba Behean egiten den urteko azken feria honek izugarritzko arrakasta izaten du urtero-urtero, bai partehartzaileei, baita hurreratzen diren ikusleei dagokienean ere. Aurtengoan euriak barra-barra ekin zuen egun osoan eta horrek, nahi eta nahi ez, izan zuen eragirik. Izan ere, aterki artean ibili beharrak feriarenean ikusgarritasuna moteldu egiten du eta kanpotik hurreratzen den jende kopurua ere gutxitu egiten da. Etoritzeko konpromezua hartu zu-

ten baserritarren artean, 15ek deitu omen zuten eguraldi eskasa zela eta, feria parte hartzeko zuten asmoa bertan behera geratzen zela azalduz. Halere, ezin esan gauzak ongi aterata ez zirenik, antolatzaileak eta partehartzaileak, guztiak pozik geratu bai-tziren egunak emandakoarekin. Baserritarren artean, gainera, salmenta kopurua ona izan zen eta gehienak pozik azaldu ziren bisitariek egin zituzten erosketekin. Herri osoan sakabanatuak zeuden saltokietan ikus zitezkeen jendea, baserritarrek eskaintzen zutena dastatuz, galderak egin eta erosiz.



SARIAK

GAZTA LEHIAKETA

- 1- Jose Migel Azurmendi, Zegama.
- 2- Andrés Audikana, Gereñu
- 3- Juan José Aranburu, Zerain

BARAZKI LEHIAKETA

- 1- Pello Rubio, Elgoibar
- 2- Adela Andikoetxea, Urduliz
- 3- Alejandro Arrieta, Markina

FRUTA LEHIAKETA

- 1- Antonio Iparragirre, Mutriku
- 2- Manuel Iradi, Hernani
- 3- Inazio Artola, Azkoitia

AURKEZPEN ONENA

- Sagarmina baserria, Mutriku

HERRIKO ONENA

- Txillarre baserria

ERREZIL SAGAR ONENAK

- Maria Etzezarreta, Gabiria

Goiko argazkian, Goikoerrotako elkarteko antolatutako gazta lehiaketan sarituak izan zirenak ikus ditzakegu.

Behean, berriz, barazki, fruta eta saltoki onena izateagatik irabazle suertatu ziren baserritarrak. Ezkerretik bigarrena, Pello Rubio elgoibartarra, Txillare baserrikoa.

Aterkia eskuan atera ginen gehienok Gabonzahar feria egunean kalera. Eta aterkien artean ibili behar izan genuen erdi borrokan, herrian zehar sakabanatuak zeuden salto-kiak ikusi eta produktuak erosi ahal izateko.



Urtero bezala, hileroko ganaduaz gain, hegaztiak, barazkiak, frutak, gozoak, ez-tia eta beste hainbat eta hainbat gauza izan genituen eskura. guztiak bertoko eta inguruetako herrietatik ekarritakoak.

Gabonzahar feriaren zenbait argazki ikus daitezke jarraian. Pena da, ordea, horien ikusgarritasuna koloretan azaltzerik ez izatea. Halere, herrian ibili zenak jakingo du zer eta nola zegoen.

Urtean behin taloa txorizoa-rekin jateko paradatxoak izan ohi da ferian eta lanean jardun zuten Intsumituek eta AEK euskaltegiekoek. San Bartolome ikastolakoek, aldiz, berrikuntza bat antolatu zuten. Izan ere, herriko zenbait harategirekin batera, Euskal Labelaren izenean, txahal bat erre zuten eta arratsalde partean hainbat eta hainbat pintxo saldu zituzten.

Orokorrean Gabonzahar feria ikusgarria izan, aurreko urteetako feriaren parekoa gutxienez, kontuan izanik eguraldia zein eskasa izan zen.





"39 urte in ditxudaz Elgoibarko merkatu plazara etortzen"

64 urte dituen mallabiar hau 25 urte-ekin ezkondu zen Berrizko Bertoitu baserrira. Gaztetan, astoa hartu eta egunero esnea partitzera joaten zen Ermura. Ezkondu zenean, berriz, amaginarrebak eta koinatak zuten ohiturari heldu zion berak: ostegunero, Elgoibarko Merkatu Plazara etortzen zen barazkiak saltzera. Dolores Gallastegik 39 urte bete ditu joan-etorrian eta Gabonak aurretik jubilatuta zaigunez, tartetxo hau berari eskaintzea erabaki dugu.

- Urte asko Elgoibarren, Dolores.

- Askok izan dia, bai. Konturatu orduko urtiak jun eta urtiak etorri, ixa 40 urte ein ditxudaz ostegunero Merkatu Plazara etortzen.

- Egingo zenuen kale behin edo

behin, ez?

- Izango zan, bai, baina gitxitxan. Ez dot pentsatzen lau bider baino gehixo kale in dotenik. Akaso familixia euki nabianian edo, baina, ostantzian, eurixa nahiz elurra ein, astero etorri izan naiz.

- Trenez hasieran.

- Bai. Trena hartzen nabian Berrizen eta zuzenian Elgoibarrera. Hemen, estaziuan karretilia hartu eta Merkatu Plazaraino. Gero, gizonak edo semiak ekartzen zien kotxian, nik karnetik ez dot sekula etara eta. Azken urtietan auzoko bat ere etortzen zan arrautzak saltzera eta harekin eitxen nabian bueltia.

- Elgoibarko Merkatu Plaza zaharra ezagutuko zenuen.

- Bai, bai. Desberdina zan. Nik nahi-xo igual haura, ez zakan eskailerarik eta. Oinguak, en kanbio, eskailera asko daka

eta jende nausixa ezin ixota ibiltzen da. Gaztiak berriz ez dia ixa etortzen.

- Askok jaitsi dira bezeroak?

- Askok. Oin denda haundixetan erostia nahixau dau jendiak nahiz eta produktua karuaua izan. Gurian regateua ere eitxeko ohitxuria dao.

- Benetan?

- Bai, baina batez ere azken aldera. Itxitxeko ordua ailegatzar daonian eta ondiok gauzak saldu be dakazuzela ikusten badozu, ba orduan merkio emateiozu bezeruari.

- Negozio gutxi, orduan.

- Negozioa eitxiarren ez nitzan etortzen. Batzuetan gasoliniakin parra eitxeko etaratzen nabian. Ni hainbeste urtian etorri izan banaiz, hemengo jendiakin nakan harreman onagatik izan da. Baserritxik urten, jendiakin berba ein... Elgoibartarrak oso sinpatikuak eta kariñosuak zerate eta rekuerto ona dakat. Seguru faltan botako dotela hori dana hemendik aurrera.

- Bezeroek ere igarriko dute zure falta.

- Hasieran igual bai baina gero pentsatzen dot ohitxuko diazela besteren batekin. Ni ailegau nitzanian lelen-go aldiz, beste andra bat juten zan eta gero nerekin ohitxu zan jendia. Baten atzetik beste bat dator beti eta jendia erraz ohitzen da.

- Egingo diguzu bisitarik, ez?

- Akaso egunen baten etorriko naiz jaiotza ikustera. 39 urtian hainbeste entzun ikusgarria dala eta sekula ikusi be. Igual egun hauetako bat aprobe-txauko dot bisitia ein ta ia lagunak ere ikusten ditxudazen.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11

89

25 urteko elgoibartarra dugu Bego Martín. Duela sei urte Dublinera joan zen ingelesa ikasteko asmoz. Sei hilabete pasa zituen bertan familia batekin au-pair lanetan. Halere, hizkuntza behar bezala ikasteko denbora nahikoa ez zela eta, egonaldia luzatzea erabaki eta Irlandara itzuli zen. Bertan ezagutu zuen Ciaran, gaur egun bere mutil laguna dena, eta dagoneko sei urte daramatza Begok Euskal Herritik kanpo.

MARTIN
BEGO

“Irlandako enpresa bateko salmentatza departamentuan nago lanean”

– Sei hilabeterako joan eta...

- Bai. Ingelesa hobeto ikasi nahi, Dublinen nobixua topatu eta, gaur arte.

– Sei urtetan gauza asko aldatuko ziren, ez?

- Bai. Oin dala bost urte ez zauan lanik han eta txapuzak eitxen ibili nitzan: umiak zaindu, etxietan plantxa ein, restaurante batian lan ein... Oin Creative izeneko enpresa batian naolanian, salmenten departamentuan. Bartzelonan bulego bat dakate eta ni naiz kontaktua. Oso gustura nao.

– Karrera bat ere egiten ari zara.

- Bai, enpresariales antzekoa. Bukatzen ari naiz. Denbora aprobetxatzen saiatu naiz. Ingelesaz gain italiara eta alemana ere ika-

si ditzut. Egixa esan, gaztelera eta euskera dia ahazten ari zaizkidanak, oso gutxi praktikatzen ditudalako. Gaztelera zerbait gehiago Bartzelonako bulegoekin hitz egiten dudalako, eta euskara BARREN astero jasotzen dudalako mantentzen dut.

– Etxea erosi berri duzu, ez?

- Bai, duela bi hilabete. Bost urte egon naiz alkilerrian eta oso garesti ateratzen da. Han bizitza maila garestiagoa da, nahiz eta soldata altuagoa izan. Orain ilusioarekin, poliki-poliki etxea jastzen.

– Nolako da zure bizimodu?

- Oso normala, hementegoa bezalakoa. Goizero lanera joan, astean bi aldiz unibertsitatera, etxera joan,

afaldu, telebista ikusi eta astebukeretan lagunekin aterara, buelta bat eman edo juerga egin.... Hemen bezela.

– Erraza egin al zaizu integratzea?

- Bai, oso erraza. Jendea oso jatorra da eta oso irekiak dira. Ez dut arazorik euki eta han ez naiz atzeritarrak sentitzen, hasieratik oso ondo hartzen zaituzte eta gainera euskalduna zerrala esaten badiezu....

– Zerbaiten falta igarriko duzu, ez?


- Bai, familia, ze Elgoibar ez da aldatzen. Urtean bi aldiz etortzen saiatzen naiz, Gabonetan eta udan, eta gauzek berdin-berdin jarraitzen dute. Lagunen bat ezkondu dela, umea izan duela... Baina bestela denak berdin jarraitzen du. Horregatik, Gabonetan etortzen naizenean familiarekin egotea gustatzen zait.

– Zure senargaiari gustatzen al zaio Elgoibar?

- Gabonetan normalean Irlandan geratzen da baina udan, San Bartolomeak hemen pasatzen ditugu eta asko gustatzen zaizkio. Txiki egunean zoratuta gaudela esaten du baina besteek bezela disfrutatzen du.

– Noizko buelta?

- Ez dakit. Momentuz gauden bezela jarraituko dugu. Hemen gauzak ez daude batere ondo lan aldeetik eta han biok gaude lanian. Batzuek esaten diate Bartzelonara juteko baina horretarako nahiago dut Irlandan egotia. Bartzelonan biok izango ginake atzeritarrak. Oraingoz gustura gaude. Gerora begira ikusiko dugu, baina pauso bat atzera emateko ez gera etorriko.



BESTEAK ESANA

“Bego pertsona irekia da; oso erraza da diskidetasun ona lor-tzea berarekin. Gainera, beti dago besteei laguntzeko prest”.

INMA MARTIN, ahizpa

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Alberto Hijano Mendizabal (Abenduak 2)
- Ihart Garitaonandia Laspiur (Abenduak 12)
- Olatz Etxeberría Zengotita (Abenduak 25)
- Jon Pérez Iriondo (Abenduak 29)
- Laura Hernández González (Abenduak 30)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Esteban Mendikute Mendikute, 89 urte (Abenduak 3)
- Maria Pilar Olaizola Gerediaga, (Abenduak 9)
- Roberto Zubiaurre Zabala, 88 urte (Abenduak 19)
- Juan Jose Orbea Arriola, 75 urte (Abenduak 22)
- Ignacio Egia Gabiola, 61 urte (Abenduak 26)
- Maria Rosalia Altuna Mendikute, 89 urte (Abenduak 26)
- Francisco Arriola San Martin, 81 urte (Abenduak 27)
- Maria Eguren Ortiz de Zarate, 83 urte (Abenduak 28)
- Pedro Lotina Torre, 80 urte (Abenduak 29)

**Jose Maria
Mugerza
Izagirre
(1925-1980)**



- 1925eko abuztuaren 22an jaio zen Errosario kalean. 7 anai-arreba ziren, bera bosgarrena.
- Txikitan triplea eta monagiloa izan zen parrobian. Eskola publikoetan eta Don Luis Etxanizekin ikasi zuen. Futboleko jokatzea gustatzen zitzaion. Bolatokian eta Aita Agirre plazan ibiltzen zen jolasten. Gorputz handiko mutila egin zen eta esku pilotan ederki jokatzen zuen indar handia baitzuen.
- Forjas de Elgoibarren hasi zen lanean. Gauetz Escuela de Artes y Oficios-en ikasi zuen denboraldi batean.
- San Luis Gonzagako kongregaziokoa zen. Kongregazioko koroan abesten zuen, baita parroki abesbatzan ere. Prozesioetan San Juan Ebanjelaria errotan zuen.
- Futbola gogoko zuen seinale zen kuadrilarekin urte askotan joan izan zela Lerunera, baita erbestera ere C. D. Elgoibar animatzera.
- Etxean eduki zuten lantegi mekanikoan ere lan egin zuen. Urte askotan tornulari lanak egin zituen eta azkenean, Sigmara joan zen lanera. Urte batzuetan lan egin ondoren, lantalde baten ardura eman zioten.
- Esperanza Unzillarekin ezkondu eta 6 seme-alaba izan zituzten.
- Tabernetan lagun artean abesten zuen. Entzute handikoa zen kontu honetan, bere familia osoa bezala. Plaza Handian izan zuten tabernan, 'Bar Rikarda'n (gaur Iturri taberna dena) hainbat aldiz abestutakoa zen Jose Mari.
- Baltasar Elkarteko bazkidea eta Odol Emaitzen Elkartearen ere lan ugari egin zituen. Santa Ageda koroetan ere parte hartu zuen.
- Jenio bizikoa izan arren, borondate eta sinesmen handikoa zen, baita famili girokoa ere.
- Gizon gordina zela, familia ederra lagata, 1980ko irailaren 28an hil zen 55 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.**

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (biltegia) 74 13 27 (etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (mobila) 908 77 07 01



1970ko lehen erretratu zaharra
1970ko kobazuloetako atarian
1970 izango da. Erretratua **Ferriak** ekarri digu eta atakoa dela esan digu. Beldur izan zuten kobak ikusteko irteera eta Aita Barandiaran zena izan zuten gidari eta azalpenak ematen. Gehienok jakingo duzuen bezala, oraingoz amaitu da kobazulo honetako pinturak ikusteko aukera, duela pare bat aste itxi baitzituzten pinturak zeu-

den kamarak.

Ikus dezagun zein diren Santimamiñen izan ziren elgoibartar hauek:

Goitik behera, ezkerretik hasita: **Trini Urkizu, Iñaki Larrañaga, Iglesias, Agirrebeña, Sangroniz, Arantza Uriguen, Patxi Iriondo** eta kobetako zaindaria.

Santi Retolaza (txapelarekin), **Jose M. Mujika** (†), **Jesus Larrañaga, Jesus M. Ansola** eta **Felix Etxeberria**.

J. Migel Barandiaran (†), **Jose A. Zuazubiskar, Iñaki Egin** (†), **Mariano Retolaza** (†) eta **Luis Arrieta**.



ESKERTZA

1997ko abenduaren 27an, 81 urte zituela hil zen FRANCISCO ARRIOLA SAN MARTINen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Mugerza Memorialeko 55. edizioa **Handien artean handienak**

Ikusleek harrera beroa egin zioten Martin Fizi helmugan

Mintxetako zirkuituaren inguruan besterik ez zen entzuten; “ Martin, Martin, Martin!”. Martin Fiz gasteiztarrarekin batera bi keniar, Paul Koech eta Moiben, hasieratik jarri ziren lasterketaren buruan. Koech-ek bigarren itzulian 30 bat metroko aldea atera zien beste bie. Bazirudien esfortzurik gabe ari zela korrika. Lasterketa amaierarate eutsi zion abantailari eta helmugara lehendabizko postuan iritsi zen. Martin Fizek sasoi ezinhobean dagoela erakutsi zuen. Hirugarren itzulian Moiben keniarra gainditu

zuen eta alde ederra atera zion. Mintxetako helmugara iritsi zenean, ikuslegoak txalo luze eta beroak eskaini zizkion gasteiztarrari. Reebok taldeko korrikalaria harmailetara hurreratu zen elgoibartarrak agurtzeko eta txaloak eskertzeko. Sari banaketa ekitaldian ere, Fizek ikuslegoari eskaini zion bigarren postuan iristeagatik lortu zuen saria eta euskaldun onenari ematen zaion trofeoa. Sariak banatu ondoren Koech keniarrek eta Fizek batez ere, hainbat zaleturen eskakizunak bete behar izan zituzten; argazkiak atera, autografoak sinatu, etab.



Lasterketako lehen unetik podiumera igo ziren hiru korrikalariak demaseko tartera atera zieten gainontzeko partehartzaileei. Lasterketa buruan Paul Koech, Jaimes Moiben eta Martin Fiz. Beheko argazkian emakumeen podiuma, Kutre Dulecha buru.

SAILKAPÉ-

SENIOR GIZONEZKOAK

- 1- Paul Koech (Kenia) 32'16"
- 2- Martin Fiz (Reebok) 32'27"
- 3- Jaimes Moiben (Kenia) 32'47"

SENIOR EMAKUMEZKOAK

- 1- Kutre Dulecha (Etiopia) 18'05"
- 2- Gennet Georgis (Etiopia) 18'09"
- 3- Rocío Rpios (Adidas) 18'10"

JUNIOR GIZONEZKOAK

- 1- F. El Narsi (Adidas) 21'33"

JUNIOR EMAKUMEZKOAK

- 1- Rosa Morató (Sabadell) 14'02"



● Zilarrezko dominak Eibarko Judo Txapelketan

Ibai Kirol Elkarteko sei elgoibartarrek Eibarren izan zen Nazioarteko Judo Txapelketan izan ziren abenduaren 13an. Txapelketa honetan Portugal, Valentzia, Frantzia, Errioxa, Cantabria, Eibarko Kalamua eta Ibai Kirol Elkarteko judoek osatutako Gipuzkoako talde konbinatuak parte hartu zuten. Elgoibartarrek sailkapen bikaina lortu zuten taldeka. Izan ere, infantilak finalera iritsi ziren eta valentziarren aukera lehiatu ziren. Azkenean bigarren postuan geratu ziren. Bestalde, kadeteak Portugalgo selekzioaren kontra aritu eta hauek ere bigarren lekuan geratu ziren. Argazkian, Egoitz Mora, Gorka Garate, Zuhaitz Azpiazu eta Josu Idiakéz.



Federazioko Kopa Haundirentzat

Urteko azken eguna, abenduaren 31a, egun zoriontsua izan zen C. D. Elgoibar-ko jokalaria eta zuzendaritzako kideentzat. Federazioko Kopako itzuleko partiduan Haundik 3 eta 0 irabazi zion Zallari nahiz eta bizkaitarrek 2 goleko errenta izan joaneko partiduan lortutakoak. Kopa eskuratzeko 3 eta 0 irabazi behar zuen Haundik. Bai eta lortu ere.

Haundi eta Zallaren arteko partidua segimendu estua izan zuen Mintxetako harmailetan pilatu zen ikusle mordoxkaren partetik. Partidu garrantzitsua zen benetan; Kopa zegoen jokoan. Haundik 2 gol zituen bere aurka baina partidu osoan euren izan zuten kontrola. Lehen zatian ez zuten ez bat ez besteak golik sartu baina bigarren zatian Haundiko jokalariek ondo aprobetxatu zituzten aukera guztiak. Aiartek lehen gola

sartu zuen. Ondoren, penalti bati esker bigarren gola etorri zen elgoibartarrentzat eta azkenik, partidua amaitzeko 10 minutu besterik falta ez zirenean, Mikelek hirugarren tantua lortu zuen. Jarraitzaileak behin eta berriz jaiki ziren aulkietatik txalo eta poz algaren artean.

Ormaetxea entrenatzailearen esanetan, "jokalariek txalo handi bat merezi dute. Bagenekien zail xamarra zela irabaztea baina ilusio eta fede handiarekin jokatu dute, eta horra hor emaitza".

Taldeen arteko pikea

Zalla eta Elgoibarren arteko pikea aspaldikoa omen da. Harmailetan zallatar gehiegi ez bazegoen ere, zalaparta dexente ateratu zuten. Jokalari, zuzendari eta zaletuen arteko harremana nahiko tentsoa omen da eta elkarren artean hitz gogor xamarrek entzun ziren.



● Saskibaloi taldeko zozketa

Saskibaloi Taldeak bazkideen artean urtero egiten duen zozketan 052 zenbakia izan da saritua. Zenbaki hau bazkide txartelari dagokiona da. Beraz, bazkide txartel hori duenak bi lagunentzako afaria irabazi du. Erretserbako zenbakia 020 da. Hilabeteko epean irabazlea agertzen ez bada erretserbakoari emango zaio saria. Kontakturako telefona: 74 07 09.

● Ignacio Kortabitarte pilotaria hil da

Ignacio Kortabitarte pilotari elgoibartarra hilaren 4an hil zen 86 urterekin. Jaiotzez Murelagakoa bazen ere, Elgoibarren bizi izan zen. 1930ean estreinako jardun zuen esku pilota profesionalean eta bere garaiko atzelari onenatarikoa zen. 1940, 1942 eta 1944. urteetako pilota txapelketetan finala jokatu zuen eta txapel-dunorde geratu zen. Mondragonés, Atano III.a, Atano IV.a, Urzelai I.a, Txikito de Mallabia,



Arriaran, Gallastegi eta beste batzuekin jokatu zuen. Ignacio Kortabitarteren aldeko hileta elizkizunak astelehenean, hilak 5, egin ziren parrokan.

AGENDA

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 10
16:00 Pneumax - Askartza Claret (Kad. mut.)
17:30 Tecnomeca Elg. - Askartza Claret (Jub. mut.)
Igandea, 11
9:30 Unceta Elg. - Urnieta (Kad. nes.)
11:00 Pagoaga Elg. - Urnieta (Jub. nes.)
12:30 Elgoibar - Urola (Seniorrak)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 10
16:30 Pedrusko - Elgoibar (2. erreg.)
Igandea, 11
16:30 Elgoibar - Intxaurren (1. jub.)

Athletismoa, Mintxetan

Igandea, 11
10:30 Mintxetako III. Saria

Saskibaloi, Kiroldegian

Larunbata, 10
19:00 Elgoibar S. T. - Zumaiako S. T.

AGENDA

(Urtarrilak 10, larunbata, 7. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA

■ Benjamin mut. (Mintxetan) ■
10:00 Ikas Bulls - Ikas Bihurri
11:00 Herri Otsoak - Ikas Gorri
12:00 Pilar Bulls - Mendaro A
12:30 Pilar Lakasitos - Ikas Tximista
 ■ Benjamin nesk. (Mintxetan) ■
9:30 Ikas Hartz - Ikas Bizkor
10:30 Ikas Baleak - Pilar Usoak
11:30 Pilar Txiki - Ikas Hortzadar

SASKIBALOI

■ Alebin mutilak (Ikastolan) ■
10:30 Ikas Gol - Herri Boomerang
11:15 Pilar Flash - Ikas Inpernu
12:00 Mendaro B - Ikas Espabidubi
 ■ Alebin nesk. (Herri eskolan) ■
10:30 Pilar Girls - Herri Argi
11:15 Ikas Planet - Ikas Txingor
12:00 Ikas Laino - Ikas Trumoi
12:00 Ikas Eder - Pilar Mix

ESKUBALOIA

■ Infantil mutilak (Kiroldegian) ■
10:30 Pilar Ajax - Ikas Axelko
12:00 Ikas Bolilla - Pilar Boys
11:15 Ikas Otsoko - Perraubekoak
 ■ Infantil neskak (Kiroldegian) ■
9:00 Ikas Spanky - Ikas Gorribeltz
9:45 Blablatarrak - Ikas Trons

EUSKAL PERTSEKO KIROLAK

'Jendetxa' taldea izan da 1997ko Gabonetako Kuadrilarteko Txapelketako irabazlea

Aurten 16 kuadrilak hartu du parte, iazkoen erdiak

Iaz baino 17 talde gutxiagok hartu du parte Gabonetako Kuadrilarteko VII. Txapelketan. Udal Kirol Patronatuaren zuzendariaren ustetan faktore ezberdinek izan dute zerikusia jaitsiera honetan. “Batetik, kuadrila asko batu egin dira eta talde bakarra sortu dute, talde hobe ateratze aldera. Bigarrenik, klub batzuek ez dute nahi izan euren jokalariek parte hartzerik eta hirugarre-

nik, datak aldrebes xamar tokatu dira aurten. Jaiegun asko egon da tartean eta ez da iaz bezala, aste oso bat egon jarraian txapelketa jokatzeko”. Gainontzean balorazioa oso positiboa da. “Ikusle asko egon da batez beste partiduak ikusten; Kiroldegia bete egin da ia beti. Penagarriena krosa eta txirrindularitza egon zen egunetan euria egin zuela izan da”.



1. Txapelketako irabazleak, 'Jendetxa' kuadrilakoak. Bigarren postuan 'Peña Aston Villa' taldea sailkatu zen eta hirugarrenean 'Peña Mak'. **2.** Txirrindularitzako irabazleak ere 'Jendetxa'koak izan ziren. **3.** Kiroltasunaren saria 'Aide Globum' taldeak jaso zuen. **4.** Jokalari onenak jasotzen duen saria 'Peña Aston Villa' taldeko **Jose Antonio Ruizi** eman zitzaion. **5.** 'Jendetxa'koak areto futbolako txapeldunak izan ziren. **6.** Saskibaloiko txapeldunak 'Dinamo Kalimotxo'koak izan ziren. **7.** 'Peña Mak', palako txapeldunak. **8.** Kros lasterketako talde irabazlea, 'Peña Aston Villa'.



"Caracol" aren taupadak

Txango bat egiteak badu erakargarri egiten duen zer bait: herritik ateratzea, alegia. Alde txarra, berriz, kilometroetan datza. Kontzertu bat ikustea, izugarritzko txangoa egitearen barruan sar genezake, nahiz eta horrek bidaia luze bat egitea inplikatu. Benetan merezi izan zuen TINDERS-TICKS bezalako talde bat ikusteko Madrileraino hurbiltzea.

Kontzertu osoa aho zabalik pasa ondoren, mireспенak sortarazitako komentario ugari atera zen gure artean. Nick Cave, Leonard Cohen edo zorigaiztoko "crooner" askoren itzalak somatzen genituen bitartean, sentimendu barnerakioena ere ernarazi zigun taldean pentsatzen hasi ginen. Tristura eta atsekabeen pasarteek gidatu zuten kontzertua, bertan zegoen jendetaren taupadek hornituta.

Londrestik datorkigun talde honen edozein diska har genezake begiak bustiarazteko. "Edozeinek" gustura entzun dezakeen talde bat dela ukatzerik ez dago behintzat. Melodia bikainak, orkestazio izugarriak eta ahots ahaztezinak derrigorrezko esperientzia egiten dute TINDERSTICKS taldea entzutea. Una lacrima...

Iban Urizar eta Julen II



Abenduak 23, BARRENen 5. urteurrena
Ale berezia eta erretratu zaharren liburuak kaleratu zituen BARRENek

Erretratu zaharren liburuak salgai dago 1.000 pta.n

Joan den abenduaren 23ko iluntzean Udal areto plenoan bosgarren urteurrena ospatu zuen BARRENek. Egun berean 60 orrialdeko zenbaki berezia banatu zen, BARREN sortu zenetik, hau da, 1992ko abendutik 1997ko abendura bitartean gertatu diren notizia garrantzitsuenak jasotzen dituen. Ekitaldian zenbaki berezi horren aurkezpena egin zen.

Gillermo Garate alkateak BARRENek bost urte betetzea "pozgarria" dela aipatu zuen. Elgoibarko Izarra elkarteko lehendakaria den Inasio Garmendiak BARREN diruz laguntzen duten erakunde guztiei eskerrak luzatu zizkien eta euskararen normalkuntzan BARRENek duen garrantzia azpimarratu zuen. BARRENeko zuzendaria bere aldetik, eguneroko jardunean laguntzaile izan diren guztiak gogora ekarri zituen.

Bestalde, dagoeneko ederki saltzen ari den erretratu zaharren liburuaren aurkezpena egin zen. Maite Rementeria liburuaren egileak, argazkien aukeraketa egiterako orduan zailtasun handiak izan zituztela adierazi zuen, "BARRENen bost urteotan agertutako erretratu denak ziren politik benetan, baina 100 bakarrik kabitzen zirenez, batzuk beste baterako laga behar izan ditugu". Ekitaldian ez ziren bertsoak eta aurrekua falta izan. Kepa Mendikute, Irati Agirreazaldegia, German Meabebasterretxea eta Ziarda bertso-



Goiko argazkian, abenduaren 23ko aurkezpenean I. Garmendia Elgoibarko Izarrako lehendakaria, G. Garate alkatea, Maite Rementeria liburuaren diseinatzailea eta Ainhoa Lodoso BARRENeko zuzendaria. Behean, Haritzeko aurrekularia.



tan aritu ziren eta Haritz Dantzari Taldekoek aurrekua dantzatu zuten ekitaldiari amaiera emanez.

Liburuak salgai

BARRENek argitaratu duen erretratu zaharren liburuak abenduaren 23tik dago salgai. 1.000 ale baino ez dira kaleratu eta salmenta nahiko ondo doa. Egun jakinetan kalean jarri da salgai eta San Anton egunean, esaterako, postu bat jarriko da nahi dutenek erosteko aukera izan dezaten. Gainontzean, BARRENen, Elgoibarko Izarra Elkartean edo Gorostiza eta Pitxintxu liburudendetan ere eskuratu ahal izango da 1.000 pta.ren truke. Liburuak BARRENen agertu diren 100 erretratu zahar biltzen ditu.



**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

9
ostirala

**22:00 SAN ANTON
PILOTA
TXAPELKETA**
Bigarren finalerdia
Ikastolako frontoian

22:15 ZINEA
“La teniente O’Neil”

10
larunbata

19:30-22:15 ZINEA
“La teniente O’Neil”

11
igandea

**10:30 ESKOLARTEKO
III. MINTXETAKO
KROSA**
Mintxetan

19:30-22:15 ZINEA
“La teniente O’Neil”

12
astelehena

19:30-22:15 ZINEA
“La teniente O’Neil”

16
ostirala

**22:00 SAN ANTON
PILOTA
TXAPELKETA**
Finalak
Ikastolako frontoian

22:15 ZINEA
“Alien Resurrección”

ZINEA



La teniente O’Neil

EEBBetako Armadako Inteligentzia Zerbitzuko ofiziala den Jordan O’Neil tenientea eliteko unitate batean sartzen den lehendabiziko emakumea da. Entrenamendu fisiko gogorraz aparte, O’Neil tenienteak gizonezkoen mundu bateko presio emozionalak jasan beharko ditu egokitu zaion misioa betetzeko gai dela erakusteko.

Zuzendaria: Ridley Scott.
Antzezleak: Demi Moore,
Viggo Mortensen, Anne Bancroft.

FARMAZIAK

	Egunez	Gaeuz
10	Bidasolo	Bidasolo
11	Bidasolo	Bidasolo
12	Etxeberria (Santa Ana kalea)	Etxeberria
13	Anduaga	Anduaga
14	Yudego	Yudego
15	Zabaleta	Zabaleta
16	Etxeberria (Errosario kalea)	Etxeberria

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

11 igandea Idarra

● Igeriketa eta emakumeentzako defentsa ikastarook

Udal Kirol Patronatuak antolatuta, igeriketa ikastarook hasiko dira berriz urtarriaren 12tik aurrera. Haur, gazte eta helduen taldeak osatuko dira goizez zein arratsaldez. Era berean, emakumeei zuzendutako defentsa ikastarook hilaren 10ean hasiko da. Batean zein bestean parte hartu nahi duenak 74 44 15 telefono zenbakira deituta eman dezake izena.

● Guraso Eskolaren aurkezpena

Hurrengo asteazkenean, hilak 14, Guraso Eskolaren aurkezpena egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 15:00etan. Aurkezpena irekia izango da nahi duen guztiarentzat. Kurtsoa nolakoa izango den, funtzionamendua, ordutegiak, gaiak, etab. azalduko dira bertan. Guraso Eskolaren helburuak seme-alaben hezkuntzaren norabideak gurasoei adieraztea, arazotak konpontzea eta guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzea dira.

● Mintxetako III. Atletismo saria domekan, hilak 11

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta, domekan, hilak 11, Mintxetako Atletismo Sariaren hirugarren edizioa izango da eskola ezberdinetako neska-mutilentzat. Alebin, infantil eta kadete mailako lasterketak izango dira, neska eta mutiletan. Goizeko 10:30ean hasiko da lehen lasterketa eta azkena 12:10ean. Sari banaketa 12:30ean izango da.

● Idazkuntza ikastarook

Udal Euskara Batzordeak idazmena euskaraz lantzeko ikastarook antolatu du. EGA titulua dutenei edo lanbidez nahiz gustuz euskaraz idazteko premia duen edozein pertsonari zuzendurik dago. Ikastarook urtarriletik ekainera bitartean izango da, asteazkenean 17:30etik 20:30era, guztira 69 ordu. Pertsona bakoitzeko prezioa 30.000 pta.koa da eta bi epetan ordaindu ahal izango da kopuru hori. Izena emateko 74 43 66 telefonora deitu ahalik eta lasterren.

● Euskal abesti herrikoien ikastarook Mikel Markezen eskutik

Elgoibarko AEK euskaltegiak euskal kultura bultzatu eta ezagutarazteko asmotan, euskal abestiak ikasteko ikastarook antolatu du 98ko egitasmoen barruan. Ikastarook hilaren 12, 13, 15 eta 16an izango da. Bi orduz ezberdin daude aukerak: bata bazkalostean eta bestea iluntzean. Mikel Markez euskal abeslari ezagunak emango du ikastarook. Saioak Kultur Etxean izango dira. Ikastarook parte hartu nahi duenak AEKk Aita Agirre plazan duen egoitzan eman dezake izena edo 74 13 31 zenbakira deituta. Izena ematerakoan ikasiko diren abestien kopiak emango zaizkio ikastarokideari 500 pta.ren truke.

Sara



San Frantzisko, 44 · Tel: 74 35 55

Beherapenak

%15

%20

%30

Bestelakoak

- ♦ Urtarrilaren Sean Mercadeco, Misio Taldeak Errosario kalean jarri duen dendan, eskularru marroiak laga zituen ahaztuta norbaitek. ☎ 74 23 22
- ♦ Abenduaren 27an barbour txamarra marroi bat berde bategatik aldatu zidaten. ☎ 94-447 21 37
- ♦ Buztan beltza duen katu siamesa galdu nuen Pedro Muguruza inguruan. ☎ 74 17 87
- ♦ Lepoko zapi bat galdu dut (bi ahate ditu). ☎ 74 06 17 (Saritu egingo da).
- ♦ Perikito zuri bat topatu dut San Roken. ☎ 74 10 46 (Gauzez).

Partikularrak

- ♦ Ingeles klase partikularrak ematen dira. ☎ 74 07 86 (Nerea)
- ♦ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ 74 41 16/ 907 15 30 62
- ♦ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ 74 12 05 (gauzez)
- ♦ Injeneru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditu (gaztelaniaz). ☎ 74 22 29 (Begoña)
- ♦ Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 00 98
- ♦ Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. ☎ 74 27 78 (Sara)
- ♦ Lizentziatuak fisika eta kimikako klase partikularrak emango lituzke. Maila guztiak. ☎ 74 43 98/74 08 09 (Marian)
- ♦ Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. ☎ 74 43 98 (Iñaki)
- ♦ Fisika eta matematika klase partikularrak

Garajeak

- ♦ Garajea salgai Urasandin (5 eta 7 zenbakien azpian). ☎ 74 13 07
- ♦ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04
- ♦ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ 74 13 82
- ♦ Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. ☎ 74 19 70
- ♦ Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean. ☎ 74 03 81
- ♦ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ 74 27 89
- ♦ Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ☎ 74 04 34

Etxebizitzak

- ♦ Etxea salgai Urasandin. 90 m², 3 logela, sukaldea, 2 komun, ganbara eta 3 terrazatxo. Koketoa. ☎ 75 52 15
- ♦ Pisua alokatzen da San Bartolome 14-3an. ☎ 74 22 56
- ♦ Buhardilla bat saltzen da Pedro Muguruzan. Bi gela, sala, sukaldea, bainugela eta despentsa ditu. ☎ 74 14 23 (eguerdiko 12:00etatik 14:00etara).
- ♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. ☎ 929 43 24 22 (Arratsaldeko 6etatik aurrera).
- ♦ Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua. ☎ 908 57 95 89
- ♦ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariek. ☎ 74 00 65

Salerosketak

♦ SALDU ♦

- ♦ Taberna traspasatzen da Plaza inguruan. ☎ 74 00 16
- ♦ Merkatu Plazan lokala saltzen da. Berritua eta prezio onean. ☎ 74 25 17
- ♦ Txakur txiki bat salgai. ☎ 74 20 98 / 58 40 01
- ♦ Suzuki GSXR-1100 SS-K saltzen da. ☎ 74 37 71
- ♦ Artzai txarkukume alemaniarrek salgai. ☎ 74 35 26 (15:00etatik aurrera)
- ♦ Opel Calibra 2.0 16 V. 150 cv saltzen da. ☎ 74 22 78
- ♦ Eskiak saltzen ditut. Dymastar, 1,85 m.ko altuera. Tyrolia 490 loturekin. Nordica N995 botak, 42-43 zenbakia. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (gauzez)
- ♦ Eskiak eta fijazioak salgai. Berririak, erabili gabe. Prezioa: 20.000 pta. ☎ 75 50 51
- ♦ Kerosenozko estufa salgai. Urtebete du. ☎ 74 09 44
- ♦ Bi hilabeteko katakume pertsak, gris kolorekoak, salgai. ☎ 74 37 21 (M. Angeles)

♦ EROSI ♦

- ♦ Manikiak behar ditut eskapareterako. ☎ 58 09 18 (Bego)
- ♦ Hariak gordetzeko armairua, botoiak forratzeko makina eta kaja erregistradora erosiko nituzke. ☎ 58 09 18 (Bego).
- ♦ Fero-Sette markako trikitia erosiko nuke. ☎ 19 18 91 (gauzez)

Lana

♦ ESKAINTZA ♦

- ♦ Eulogio Estarta elkarterako kontserjea (barrarako) behar da. Interesatuak deitu ☎ 74 00 30 zenbakira edo jarri harremantean zuzendaritzarekin.
- ♦ Asteburu eta jaietarako emakumea behar da bokadiloak egiten esperientziarekin eta egunero taberna garbitzeko aukerarekin. ☎ 74 37 71
- ♦ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ 74 45 87
- ♦ Neska euskalduna behar da jate-txean lan egiteko. Esperientziarekin. ☎ 74 37 22 (Goizeko 9etatik 11etara)
- ♦ Emakumea behar da barrarako eta sukalderako. ☎ 74 37 60

♦ ESKAERA ♦

- ♦ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ 74 21 44 (Ana Isabel)
- ♦ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ 74 43 31 (Agurtzane)
- ♦ Eskopetero-arma eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko ☎ 17 47 70
- ♦ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 17 47 70
- ♦ Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. ☎ 17 47 70
- ♦ Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. ☎ 74 15 09 (Victoria)
- ♦ Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta zaharrak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldeko lanak egiten ☎ 74 37 22 (21:00etatik 23etara)
- ♦ Lokal handiak garbitzeko emakumea eskaintzen da. Esperientzia daukat. ☎ 74 39 75 (Arrate).
- ♦ Esperientziadun neskak etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 20 06 94 (Monse)
- ♦ Sukaldaria eskaintzen da 15 urteko esperientziarekin. ☎ 15 08 38 (Angel)
- ♦ Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informekin. ☎ 58 40 31 (Elgoibar)

Agurrak



♦ Zorionak Aitziber eta Manolori abenduaren 19an urteak bete zituztelako. Familia osoaren partez.



♦ Cinthiari zorionak hilaren 22an 18 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak Iduurre Ramosi abenduaren 20an 18 urte bete zituelako. Ahizpa Mirenen partez, gehiegi ez hase-rratzeko.



♦ Zorionak Juleneri abenduaren 28an urte bat bete zuelako. Familia osoaren eta bereziki gurasoen partez.



♦ Lidia Borreguerori zorionak abenduaren 18an urteak bete zituelako. Guraso, ahizpa, osaba-izeba eta lehen-

gusuen partez.



♦ Zorionak Neura Urangari abenduaren 27an urteak bete zituelako. Kuadrilako-en partez neska alai, jatorra eta ligona izaten jarrai dezala.

♦ Zorionak Vanessa zure guraso, ahizpen eta losebaren partez zure 15. urtebetetzean.

♦ Zorionak Cristinari urteko azken eguneko urteak bete zituelako. Adiskideen partez. Zorionak baita ere Andoniren partez.



San Frantzisko,
26



Aranbur

Aranburu bitxidendak, 5. urtez, Errege egunean 2 urrezko erloju zozketatu ditu bere bezeroen artean. Erlojuak "Cyma" etxekoak dira eta ezkutuko itxidura dute.

Saritutako zenbakiak :

- 1. saria: emakumezko erloju

Zenbaki saritua: 004418 B

seriea

Erretserbakoa: 000480 A

seriea

ESOZIA

Jatetxea



Esozia etorbidea, z/g

Tel: 75 10 01

20590 Soraluze

Esozia jatetxeak

1998 urte zoriontsua

opa dizue guztioi.



XIGORTZE KOMERTZIALA

AKELUA


Kafeak

**Zerbitzurik
onena inbert-
siorik
egin gabe**



**Makina superautomatiko-
ek aukera handia eskaint-
zen dute bertakoak, kan-
pokoak eta bezeroak
asetzeko. Botoi bat sakat-
zearekin, kafe egin berria.
Berak xehetzen ditu aleak
eta dosifikatzen du, eta
bat edo bi kafe express,
krema gozoarekin, aterat-
zen ditu.**

**Enpresetan
Bulegoetan
Azoketako *standetan***



San Roke, 7 behea • Tel: 74 34 01